2013/12/27ko prentsa-oharra

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EEKI) 2013ko AZAROA

# Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,4 gutxitu ziren 2013ko azaroan aurreko hilaren aldean

## *2012ko azaroaren aldean, aldaketarik ez (%0,0)*

2013ko azaroan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,4 gutxitu zen aurreko hilaren aldean 2013ko azaroan, eta azarorako urte arteko tasan aldakuntzarik ez (%0,0) EUSTATen datuen arabera.




Lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0) eta lehengaien kostuak %0,6 gutxitu dira, aurreko hilaren aldean.

Azaroan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera berbera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez, bietan %0,6ko jaitsiera. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,2 gutxitu dira eta Obra Zibilekoenak %1,4.
Urteko prezioetan (2013ko azaroa 2012koaren aldean), kontsumitu diren lehengaietan prezio-jaitsiera handienak izandako sektoreak: Metalurgia (%-5,1), Petrolio fintzea (%-3,1), Material elektrikoa (%-2,6). Azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Ez-metalezko industria (%5,9), Kautxu eta plastikoa (%5,2), eta Makineria (%2,1), nabarmentzen dira.

## 1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2013KO AZAROA (p)

| | INDIZEA | ALDEAREN % | | |
|---|---|---|---|---|
| | | m / m-1 | m / m-12 | m / abendua |
| **GUZTIRA** | 102,6 | -0,4 | 0,0 | 0,3 |
| ERAIKINAK | 102,5 | -0,4 | 0,1 | 0,3 |
| OBRA ZIBILA | 103,7 | -0,5 | -0,8 | -0,2 |
| **LEHENGAIA** | 102,4 | -0,6 | -0,3 | 0,0 |
| ERAIKINAK | 102,2 | -0,6 | -0,2 | 0,1 |
| OBRA ZIBILA | 103,7 | -0,6 | -1,4 | -0,6 |
| **LAN-ESKUA** | 103,6 | 0,0 | 1,0 | 1,0 |

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

**Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea**

***Informazio gehiago:***

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*
*Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz*
*Prentsa zerbitzua serviciopprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62*
*Eraikuntzaren Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago*
*Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizearen datu-bankua*